

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**51. zenbakia****Data 2008-03-12****7761 orria****3 GIPIIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

GFA-OGASUN ETA FINANTZA

Martxoaren 3ko 222/2008 FA, lkatzaren gaineko zerga bereziaren deklarazio-likidazioaren ereduak, epeak, aurkezteko tokiak eta baldintzak onartzeari buruzkoa.**GIPIIZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

222/2008 FORU AGINDUA, martxoaren 7koa, lkatzaren gaineko Zerga Bereziaren aitorpen-likidazioa eta eragiketen urteko aitorpen laburtzailea aurkeztu eta ordaintzeko eredu, epe, toki eta baldintzak onartzen dituena.

Euskadiren Ekonomia Itunari buruzko 2002ko maiatzaren 23ko 12/02 Legea aldatzen duen urriaren 25eko 28/2007 Legeak hainbat aldaketa sartu zituen zerga berezietan, beste esparru batzuen artean. Izan ere, itun sisteman lkatzaren gaineko Zerga Berezia sartu zen, eta foru aldundien eskumena aitortu zen hura Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen denean.

Aurrekoaren ondorioz, 2008ko otsailaren 11ko 1/08 Foru Araua onartu da, besteak beste, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itunean egindako aldaketa horietara egokitzen duena. Horrek berarekin ekarri du Gipuzkoa zerga araudia Zerga Bereziei buruzko 1992ko abenduaren 28ko 38/92 Legearen xedapenetara egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua aldatzea, hirugarren titulua erantsi baitzaio (lkatzaren gaineko Zergari buruzkoa).

Zergaren subjektu pasiboak behartuta daude sortutako kuoten aitorpen-likidazioa hiru hilabetero aurkezttera eta, aldi berean, zerga zorra ordaintzera, hala jasotzen baitu 20/1998 Foru Dekretuak lkatzaren gaineko Zergari buruzko hirugarren tituluko 89.1 artikuluan.

Bestetik, subjektu pasiboak behartuta daude zergaren eremu objektiboan sartutako produktuei dagokionez egindako eragiketen urteko aitorpen laburtzailea aurkezttera, hala xedatzen baita artikuluko bereko 2. apartatuan.

Gainera, lehenago aipatutako aitorpen-likidazioa eta eragiketen urteko aitorpen laburtzailea aurkezttera behartutako subjektuek establezimenduaren kokalekuari dagokion bulego kudeatzaileari eskatu behar diote dena delako lurralde erregistroan inskribatzeko, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan, eta ondoren Aldundiak inskripzio txartela emango die haiei, 1995eko uztailaren 7ko 1.165/95 Errege Dekretuak, Zerga Berezien Erregelamenduari buruzkoak, 138. artikuluan jasotakoari jarraituz.

Foru agindu honen bidez onartuta geratu dira aitorpen-likidazioaren eta aipatu eragiketei buruzko urteko aitorpen laburtzailearen ereduak, horiek aurkezteko epeak, tokiak eta prozedurak eta, azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde erregistroan izena ematean zergaren subjektu pasiboei emango dien inskripzio txartelaren ereduak.

Arauak egiteko ahalmenari dagokionez, foru agindu hau 20/1998 Foru Dekretuak 89.3 artikuluan jasotakoaren arabera eman da. Izan ere, horren arabera, Ogasun eta Finantza diputatuak finkatuko ditu aurreko apartatuetan aipatutako aitorpenak aurkezteko eredu, epe, beharkizun eta baldintzak.

Hori dela eta, hau

XEDATU DUT

1. artikulua. 595 ereduak onartzea.

Bat. 595 ereduak onartu da: «lkatzaren gaineko Zerga Berezia. Aitorpen-likidazioa». Foru agindu honen l. eranskinean jasota dago.

Bi. 565 ereduak hiru ale ditu:

— Administrazioaren alea.

— Interesatuaren alea.

— Entitate laguntzailearen alea.

Hiru. Ez da zertan aitorpen-likidazioak aurkeztu dena delako zergaldian ordaintzeko kuotarik sortu ez denean.

2. artikulua. 595 ereduak aurkezteko epea.

Sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo lehendabiziko hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da 595 eredua (Ikatzaren gaineko Zerga Berezia. Aitorpen-likidazioa).

Diru sarrera ordaintzeko azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, ondoko lehen egun baliodunera aldatuko da mugaeguna.

3. artikulua. 595 eredua aurkezteko tokia eta prozedura.

Bat. 595 eredua (Ikatzaren gaineko Zerga Berezia. Aitorpen-likidazioa) 2006ko abuztuaren 2ko 38/06 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean aurkeztu daiteke (bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak).

Bi. Behin ordainketa egin eta gero, entitate laguntzaileak Administrazioaren eta subjektu pasiboaren aleak itzuliko dizkio interesatuari.

Hiru. Entitate laguntzaileak interesatuari behar bezala beteta itzuli dion Administrazioaren alea Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da, foru agindu honetako 2. artikuluan aitorpen-likidazioak aurkeztu eta ordaintzeko adierazitako hilabetea amaitu ondorengo lehendabiziko bost egun baliodunetan.

4. artikulua. 596 eredua onartzea.

Bat. 596 eredua onartu da: «Ikatzaren gaineko Zerga. Eragiketen urteko aitorpen laburtzailea». Foru agindu honen II. eranskinean jasota dago.

Bi. 596 ereduak hiru ale ditu:

— Administrazioaren alea.

— Interesatuaren alea.

5. artikulua. 596 eredua aurkezteko epea.

Eragiketen urteko aitorpen laburtzailea aurkeztera behartutako subjektu pasiboek aitorpenari dagokion urteko lehendabiziko hogeita bost egunetan aurkeztu behar dute hura, nahiz eta izakinik besterik ez eduki.

6. artikulua. 596 eredua aurkezteko tokia eta modua.

Bat. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da 596 eredua (Ikatzaren gaineko Zerga Berezia. Eragiketen urteko aitorpen laburtzailea).

Bi. Aitorpen laburtzailean subjektu pasibo beraren establezimendu batzuen eragiketak jasota badaude, eragiketa guztiei buruzko aitorpenarekin batera orri osagarria aurkeztu behar da, III. eranskinean jasota dagoena, eragiketak egin dituen establezimendu bakoitzeko.

7. artikulua. Aitorpen-likidazioak eta eragiketen urteko aitorpenak aurkeztera behartuta daudenak inskribatu izanaren txartelaren eredua onartzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak interesatuari emango dion inskripzio txartelaren eredua onartu da, Zerga Berezien Erregelamenduari buruzko uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak 138. artikuluan jasotakoa garatze aldera, Ikatzaren gaineko Zerga Berezia dela-eta aitorpen-likidazioak eta eragiketen urteko aitorpen laburtzaileak aurkeztera behartuta dauden subjektuak zergak kudeatzeko bulegoaren lurralde erregistroan inskribatzeari dagokionez. Aipatu txartela foru agindu honen IV. eranskinean jasota dago.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiei aplikatuko zaie.

Donostia, 2008ko martxoaren 6a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasuneko eta Finantzatako Departamentuko foru diputatua.

(2008) (2763)

I. ERANSKINA



II. ERANSKINA



III. ERANSKINA



IV. ERANSKINA

